

MATERIALISMO HISTERIKOA

Ezta nahi gabe ere



UXUE APAOLAZA LARREA

Ahozabalik ikusi dut espektakulua, eta amorrua, berriro, errepikatu zait. Berriro, gizon bat, nahi gabe bezala, bere azpiratutxoak gure lekura bueltatzen. Gehi beste amorrurru bat: nola iristen dira tipo hauek dauden lekura. Nola dago hainbeste idiota, gizon, agintaritzatza postuetan. Elkar ulertzen dute. Baina oraingoan guretzat behar zuen ohartarazpen publikoak efektua zuen, eta kopetan eman dio, boomerang batek nola. Agian, azkenean, Rubialesek mesede bat egin digu.

Ahal zuelako egin du, hala egiten dute, baina, oraingoan, ez dugu guk esplikatu behar izan joanzenetaeginzuenetaesanzionetagero... Dena bistan egin dio/digu, egin diote/digute: telebisatuta ikusi dugu eraso pasatzen uzten ez denean gertatzen denaren sekuentzia. Ezagutzen zenuten, baietz? Eraso txantxa bihurtu, bizkarrekoak elkarri, neskak histerika samar dirudite, tira, barkamentxo bat, ez dira horrekin ere konformatu, beraz, berriro paketea esku artean jarri eta ehizak, eta nik nolak, eta bera zer, eta gizonei abisatu, kontua zuena ere bada, begira nola jartzen ari diren, edonor hondoratuko dute histerika hauek, ea ni bezalako tontoek nola izango dituzten bestela halako soldatak. Biktimaren kontra jo. Eta histerikek histeria kutsatzea lortu dutenez, inguru instituzional/mediatiko ere zoro moduan: isildu, barre egin, serio jarri, berriro barre, oso serio jarri, imintzio itxuratiak egin, "hau eskandalua, hemen apustuak egiten dira!".

Jennifer Herмосok ezin izan du erabaki berak jasandako erasoarekin zer egin ere. Ezin izan du erabaki salatuko duen ez; ezin izan du erabaki ez bere esfortzuaren garaipenez gozatzea eta kitto, ez garaipen horien ondoan bera baino askoz idiotagoa den tirano baten izena betiko ez jartzea. Orain beste ikuskizun bat dator, edo isiltasun bat, biktimak ordaintzen duen prezioa erasotzailea zigortzen denean ere, edo zigortzen denean batez ere. Ez da egia, beraz; ez zegoen mesederik. Ez diguzue inoiz mesede txikiarik ere egiten. Ezta nahi gabe ere. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Elikadura

EAEEn 2.600 elikagai ezberdin daude eredu ekologikoan ziurtatuta; 2016tik hirukoiztu egin da ekologikoan ekoloziriko lurren azalera, baina oraindik nekazaritza lurren %5 da. Elikagai hauek plazaratzeko Udako Azoka Ekologikoak antolatuta dituzte EAEko 14 herritan.

Klima

Gueñesek mende honetan erregistraturiko tenperaturarik altuena izan zuen abuztuaren 23an: 45,6 gradu. Oro har, Euskal Herrian inoiz erregistratutako tenperatura handienetakoak jaso ziren joan den astean.

Matxismoa

Indarkeria matxistagatik hildako emakumeen seme-alabei (18 urtetik behera dituztenei) 5.760 euro emango dizkie Eusko Jaurlaritzak. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak onespren-agindua sinatu du eta orain Gobernu Kontseiluak onartu behar du.